

Euskal Herrian ere bada pobrezia

Pobrezia ez da existitzen soilik hirugarren munduan. Ia topikoa dirudi Euskal Herrian ongi bizi garela entzuteak. Errealitateak, aldiz, argi erakusten du denak ez direla hain ondo bizi. Euskal

Herrian ere bada pobreziarik, hazkunde ekonomikoa %4 ingurukoa badu ere. Badira pobrezia eta bazterkeria guneak gure inguruan. Hori ziurtatzen duten datuak agertu dira: 60.000 bat euskal herritar gure herrialdean dauden bost elikagai-bankuei esker –Araba, Lapurdi, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia– bizi dira.

Gezurra badirudi ere, egia da. Familia euskaldun asko pobrezia mugan bizi dira eta askotan euren txirotasun egoera larria ezkatuta egiten dute euren ingurune sozialean. “Laugarren mundua” izena hartu duen sektorea gero eta gehiago hazten ari da etorkin-saldoen ondorioz. 2006. urtean, bost bankuok sei mila tona elikagai banatu zituzten. Bizkaiko eta Nafarroa Garaiko bankuak dira elikagai gehien banatu dituztenak. Lurralde nafarrean ia bi milioi kilo elikagai sailkatu ziren eta ia 25.500 jasotzaile zenbatu ziren. Bizkaian 1.900 tona banatu ziren 17.000 onuradunen artean.

Ezin ahantz genezake ofizialki EAEn 33.824 familiak Administrazioaren oinarritzko errenta jasotzen dutela. Oinarritzko errenta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino %12 txikiagoa da (557 euro), eta Nafarroako kasuan %20 txikiagoa. Gogoan izan beharra dago Espainiako Estatuaren Lanbide arteko Gutxieneko Soldata Europako Batasuneko batz bestekoaren azpitik



DANI BLANCO

dagoela, zehazki, %40 txikiagoa da. Egia da inmigrazioa asko hazi dela, egun 120.000 pertsonako kopurura iritsi baita Hego Euskal Herrian, eta sektore horrek oinarritzko errentaren parte bat jasotzen du.

Bitartean, euskal politikaren baitan, batik bat enpresei zergak murriztearen aldeko borroka ageri da. Auziak horretan dirau Gipuzkoan. Batzuek %30eko beherapena nahi dute, besteek harago joan nahi dute, %24koa izan dadin. Administrazio bakoitzaren aurrekontuetan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata ahalik eta gehien mugatu nahia ageri da, gizarte-prestazioen kasuan bezala. Lakuak 632 milioi barkatu dizkie enpresariei Elkarteen Zergan, oinarritzko errentari eskaintzen dionaren bikoitza; Nafa-

«
Euren soldata aski oparoak handitzeko ados jartzen diren politikariek zintzotasunez, ziurtasunez, sendotasunez eta ausardiarekin erantzun beharko liokete gure ondoan bizi diren hirurogei mila euskal hiritarren pobrezia egoerari
»

roak, beste 250 milioi. Lakuak urtero, kupo bidez, gure zergetatik irteten diren 1.805 milioi euro bideratzen ditu administrazioetako gastu militarrean. Langileen soldatak gehienez %3 hazi diren bitartean, enpresarien onurak izugarri handitzen ari dira.

Guztia politika ekonomiko eta fiskal neoliberalaren edo kapitalistaren errua da, aberatsei eta enpresariei mesede egiten baitie, iruzurra ahalbidetzen baitu, pobrezia eta bazterkeria guneak sorrarazten baititu eta langileei ezartzen baitie zama fiskalaren zatirik handiena. Nomina duenak ezin die ihes egin betekizun fiskalei. Administrazioek badakite nondik dabilen iruzurra eta batzuetan ematen du beste aldera begiratzten dutela. Euren soldata aski oparoak handitzeko ados jartzen diren politikariek zintzotasunez, ziurtasunez, sendotasunez eta ausardiarekin erantzun beharko liokete gure ondoan bizi diren hirurogei mila euskal hiritarren pobrezia egoerari. ■

